AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3804

1420/2026 EBAZPENA, abuztuaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2026ko maiatzeko zikloaren destinoen eskaintza, fakultatibo medikoak eta teknikoak izeneko lanbide-taldeko laborategi klinikoko fakultatibo espezialista mediko-teknikoaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarrizko destinoak hornitzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplika dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 17ko 1093/2026 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra egiteko deialdia egin zen, fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko laborategi klinikoko fakultatibo espezialista mediko-teknikoaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko da destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2026ko maiatzeko zikloko destinoen eskaintza, fakultatibo medikoak eta teknikoak izeneko lanbide-taldeko laborategi klinikoko fakultatibo espezialista mediko-teknikoaren kategoriarako/lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hau hartu da erreferentziatzat eskainiko diren lanpostuak hautatzeko: 2026ko maiatzaren 20a.

Esleipenaren ondorioetarako, plazak betetzeko modalitateari dagokionez, 2026ko uztailaren 8koa hartuko da kontuan.

Destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko plantilla funtzionalean identifikatzen dituzten ezaugarriekin eskaintzen dira, eta honako hauek adierazten dira: zer zerbitzu-erakundetakoak

diren; zer lantoki, antolaketa-unitate eta herritakoak diren; lanaldi-erregimena; eta hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data adierazita, halakorik esleituta badu. Hizkuntza-eskakizunari eta, hala badagokio, horren derrigortasun-datari dagokionez, bereziki azpimarratzen da aurretik adostu direla, erreferentziatzat hartutako 2026ko maiatzaren 20a baino lehen, hain zuzen ere, eta hala egin dela Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko urtarrilaren 27an onartutako III. Euskara Plana eta ekainaren 1eko 3/2022 Instrukzioa betetzeko.

Eskainitako lanpostuak oinarrizko lanpostuak dira, eta adierazitako erreferentzia-datan ez zuten titularrik.

2026ko maiatzeko ziklo honetan, 2026ko irailaren 25a hartu da erreferentziatzat destino-aukeraketa egiteko edo horiek aldatzeko, baldintzak betetzeko eta merezimenduak alegatzeko.

Lehiatzaileek eskabidea aldatu ahal izango dute, destinoen hautaketa barne, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eta ekainaren 17ko 1093/2026 Ebazpenaren oinarrietan araututakoaren arabera, 2026ko irailaren 25era arte, 2026ko maiatzeko ziklo honi dagokionez.

Destinoen hautaketa egiteko eta, hala badagokio, hautaketa hura aldatzeko, lekualdatze lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2026ko maiatzeko ziklo honetan, 2026ko irailaren 25era arte egindako destino-hautaketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2026ko maiatzeko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak sartuko dira, baldin eta 2026ko irailaren 25ean gutxienez ziklo honetan eskainitako destinoetako bat badute. Beraz, destinoen hautaketa egin ez bada, hautaketarik eza hura zuzendu beharko da, eta zuzenketa hori egiteko erreferentziazko datara arteko epea egongo da, edo hamar eguneko epea, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 73. artikulutik eratorritako eskaeratik aurrera.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: LABORATEGI KLINIKOKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKO-TEKNIKOA

LANPOSTU FUNTZIONALA: LABORATEGI KLINIKOKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKO-TEKNIKOA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Laborategi Unitatea-Analisi Klinikoen Laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Laborategi Unitatea-CORE Laborategia-CORE Laborategia / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Laborategi Unitatea-Laborategi Unitatea-Laborategi Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Laborategi Unitatea-Analisi Klinikoen Laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Bidasoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Bidasoako Ospitalea-Hondarribia / Laborategi Unitatea-Laborategi unitatea-Laborategi Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Ez espezifiko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Ez espezifiko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Debagoieneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta /Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta /Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta /Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Biokimika laborategia-Biokimika Laborategia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Igaro gabeko data (2026-12-03)

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta /Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Biokimika laborategia-Biokimika Laborategia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta /Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Laborategi unitatea-Laborategi Unitatea / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
4	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Biokimika laborategia-Biokimika Laborategia / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Goierri-Urola Garaiko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / LaborategiUnitatea-Analisi Klinikoen Laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Laborategi Unitatea-Analisi klinikoen laborategia-Analisi Klinikoen Laborategia / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2026ko irailaren 4a, ostirala
169. zk.